

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gaur egungo gizartean, **teknologia** eta **zerbitzu pertsonalizatuen** integrazioa gero eta garrantzitsuagoa da. Gure proiektua aukera paregabea da erabiltzaileei **elikadura osasuntsua** eta **kalitatezko zerbitzuak** eskaintzeko, aplikazio teknologiko aurreratu baten bidez. Erabiltzaileen beharrak erdigunean jartzen dituen negozio-eredua garatzeko, funtsezko jarduerak modu koordinatuan eta estrategikoan burutu behar ditugu. Helburua, ezagutza eta teknologia bateratuz, esperientzia aparta eskaintzea eta merkatuan **lehiakortasun abantaila** lortzea da.



Gure aplikazioak erabiltzailearen gustuak, eguraldia eta beharrak kontuan hartuta, **plan pertsonalizatuak** eta **jarduera anitzak** eskaintzen ditu. Gurasoek, bakarrik bizi direnek eta familiak **kirolak** (futbola, saskibaloia, mendiko ibilaldiak, surfa, snorkela, paddlea), **sukaldaritza** eta **eskulan tailerrak** (origami, etab.) edo **turismo eta natura** sustatzen dituzten irteerak aukeratu ahal izango

dituzte. Hilabetero **menu pertsonalizatuak** proposatzen dira, janari hornitzaileekin lankidetzan, **janari osasungarri eta praktikoak** eskaintzeko. Aplikazioak **elkartruke soziala**, **gizarte-taldeak** eta **elkarlana** sustatzen ditu, denbora atsegina pasatzeko eta **pertsonen arteko harremanak** indartzeko aukera emanez. Bereziki, **gurasoentzako**, **bakarrik dauden pertsonen** eta **gizarte taldeei** zuzendutako proposamenak daude, behar eta interes desberdinetara egokituta.

Gure aplikazioak **erabiltzaileen banaketa eta pertsonalizazioa** eskaintzen ditu, erabiltzailearen **eguraldiaren, gustuen eta osasun-beharren** arabera esperientzia pertsonalizatuak sortuz. Horrela, erabiltzaileak bakoitzaren beharretara egokitutako **proposamenak jasotzen ditu**, hala nola, **kirol ekitaldiak**, **ekoturismo esperientziak** edo **janari osasungarriaren hornitzaileak**.



Aplikazioak **bazkide eta hornitzaileekin** lankidetzan estrategikoak egiteko aukera ematen du, horrela **kirol ekintza fisikoak** (adibidez, Durangoko gimnasioko Ekanan edo udal kirolekin parte hartzea), **janari freskoen hornitzaileak** (bertoko produktuekin egindako menuak eskaintzea) eta **teknologiaren aplikazioa** (adimen artifiziala erabiltzea esperientzia pertsonalizatuak sortzeko) bezalako zerbitzuak eskaintzen ditugularik.

Erabiltzaileek **plangintza pertsonalizatuak** jasotzen dituzte, beraien **eguraldiaren baldintza, gusto pertsonalak** eta **osasun-beharrak** kontuan hartuta, kirol-jarduerak, osasunerako ekintzak edo ekoturismo esperientziak bezalako proposamenak jasoz. Horrela, **pertsonalizazio sakona eta erabilera erraza** lortzen dugu, erabiltzaileari eskaintza egokia eta interesgarria aurkezteko.

Gure aplikazioaren promozio eta zerbitzu berrien zabalkunderako **sare sozialen erabilera** estrategikoa izango da, eta horretarako **Facebook, Instagram, TikTok** eta **Twitter** plataformak erabiliko dira. Sare sozialen bidez, **kanpainak** abian jarriko dira, erabiltzaileekin **harreman zuzena** eta etengabea mantenduz, zerbitzu berriak eta eskaintzak ezagutarazteko.

Aplikazioan **zerbitzuaren salmenta** egiteko, **Freemium eredua** erabiliko da. Horrela, erabiltzaileek aplikazioaren **oinarrizko funtzionalitateak** doan erabiliko dituzte, baina **funtzio gehigarriak edo aurreratuak** eskuratzeko, ordaindu beharko dute. Erabiltzaileek aukera izango dute aplikazioaren balio gehigarria probatzeko doan, eta, ondoren, zerbitzu premiumetara pasatzeko, funtzio aurreratuak eta pertsonalizatuak jasoz.

Aplikazioak hiru sarbide-aukera eskaintzen ditu: **oinarrizkoa, aurreratua** eta **premium**. Oinarrizko planak funtzionalitate mugatuak eskaintzen ditu, eta aurreratuak esperientzia pertsonalizatuak eta eskaintza eksklusiboak. **Komisioak janari-zerbitzuetik** lortzen dira, aplikazioaren bidez egindako eskaeren bidez. Gainera, erabiltzaileek **tailer eta ekintza espezializatuetan** parte hartu ahal izango dute, hala nola sukaldaritza, eskulanak edo kirol ekintzak. Salmenta eta komisio eredu hauek sinergiak sortzen dituzte, aplikazioaren balio komertzial eta sozialak indartuz.




Aplikazioak **harreman pertsonalizatuak** eskaintzen ditu, batez ere janari eskaerak edo tailerra erreserbatzeko prozesuan laguntza behar duten bezeroei. Horrela, bezeroen leialtasuna handitu nahi da, zerbitzuaren kalitatea eta bezeroaren esperientzia hobetuz. Era berean, **autozerbitzua** erabiliz, erabiltzaileek erreserbak eta eskaerak autonomoki egingo dituzte, aplikazioaren erabilera erraza eta intuitiboa bermatuz. Honek eraginkortasuna eta denbora aurreztea ahalbidetzen du, erabiltzaileen beharrei erantzunez.




Aplikazioak **komunitatearen eta ko-sorkuntzaren** printzipioak bultzatuko ditu, erabiltzaileei ekintza edo tailerrak proposatzeko eta horiek besteekin partekatze aukera emanez. Horrela, erabiltzaileek **ekintza berriak sortzeko** aukera izango dute, eta beren ideiak komunitatearekin partekatze aukera ere izango dute. Prozesu honek, aplikazioaren esperientzia aberatsagoa eta dinamikoagoa bilakatzen du, erabiltzaileen

parte-hartzea eta sormena bultzatuz, komunitatearen sormena eta elkarlana sustatuz.

Enpresaren funtzionamenduaren oinarriak eta jarduerak argi azaltzen dituzten atal hauek, aplikazioaren funtzionaltasun eta eraginkortasunaren funtzionamenduaren oinarriak ezartzen dituzte. **Bezeroen beharrak eta zailtasunak arintzea** izango da gure helburu nagusia, horretarako, aplikazioa pertsonalizatzen baitugu erabiltzaile bakoitzaren interesak eta behar espezifikoak kontuan hartuta. **Laguntza**



Erabiltzaileek beren lehentasun eta beharren arabera jasotzen dituzte ekintza eta jarduera gomendioak, adibidez, eguraldi ona dagoenean kanpoko kirol-jarduerak edo, bestela, indarra edo erlaxazioa behar dutenentzat tailerrak edo ekintza fisikoak. Horrekin, esperientzia pertsonalizatua eta egokitutako zerbitzua lortzen dute, denbora atsegina pasatzeko aukera izanik, umeen kanpoko ekintzen (mendira edo hiri eta herrietara egingo ditugun irteerekin) baita tailerren (sukaldaritza eta eskulanak adibidez) bitartez.





Eguneroko menuen alorrean, aurrez aldetik eskatzea beharrezkoa izango da, izan ere, janari galerak ez egoteko ezinbestekoa da prestatu behar diren menu kopuruak jakitea. Astelehenetan, esaterako, hurrengo menua eskainiko dugu: gosaria, platanoz eta oloz egindako krepak eta fruta desberdinez egindako mazedonia izango da; bazkaria, oilasko-paparra plantxan, labean egindako

batatekin eta entsalada mistoarekin (letxuga, tomatea, pepinoa) izango da; eta azkenik, afaria, espinaka tortilla ogi-xerra integral batekin eta tomatea xerratzen izango da.

Bestalde, gure aplikazioak kirol-jarduerak eta tailerrak antolatzen ditu adin guztietako pertsonen zuzendutako. Kirol ekintzek; hala nola, futbola, saskibaloia, mendira joatea, surfa, snorkela edo paddlea, talde-lana eta osasuna sustatzen dituzte. Tailerrekin, sukaldaritza, eskulanak (adibidez, Origami) eta laguntza tailerrak barne, sormena eta komunitatea garatzea helburu duten esperientziak eskaintzen dituzte. Horrek parte-hartzaileei dibertsioa eta elkarlana sustatzeko aukera ematen die. Ekintzak, astero egingo ditugu. Alabaina partaide kopuruaren arabera izango dira, beraz, komeni da aste bete lehenago izena ematea. Abenduaren 30ean izango da lehenengo ekintza, saskibaloia-lehiaketa Landako Gunean; alegia.



Gure proiektuak arrakasta izateko, **ekoizpena, arazoak konpontzea, plataforma kudeaketa, giza baliabideen antolaketa eta finantza kudeaketa** modu koordinatuan ezartzea beharrezkoa dela uste dugu. **Bezeroei balio erantsia eskaintzeari** (kalitatezko produktu eta zerbitzuak), **erabiltzaileen gogobetetasuna bermatzeari** (azkar erantzuten eta kalitatezko arreta eskainiz) eta **plataformaren fidagarritasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeari** emango diogu lehentasuna. Horiek guztiak uztartuz, gure negozio-ereduak lehiakortasun handia izango du merkatuan.